

AURKIBIDEA

1. Laburpena	2
2. Justifikazioa	2
3. Helburuak	2
4. Garapena	2
5. Denboralizazioa	2
6. Partaideak	3
7. Erakunde laguntzaileak	3
8. Aurrekontua edo diru laguntzak	3
9. Ebaluazioa	3

ESKOLA AGENDA 2030

1. Laburpena

Eskola Agenda 2030 proiektuak jasangarritasunaren kultura hezkuntza-komunitateetan integratzea du helburu, ikasleengan gaitasunak eta konpromisoak garatuz arazo ekologiko eta sozialak konpontzeko. Proiektua Hernani BHI instituturako egokitu da 2025/26 ikasturterako.

Proiektua Garapen Jasangarriari buruzko 2015eko Mundu Gailurrean onartutako NBEko 2030 Agendan oinarritzen da, 17 helburu, 169 xede eta 232 adierazle dituen.

Proiektuaren helburu behinenekoenak hauek dira: 1) Ikasleek krisialdi ekosozial global eta lokalaren ezagutza garatzea. 2) Arazo ekosozialen konplexutasuna identifikatzea eta alternatibak proposatzea. 3) Espazio eta baliabideen kudeaketan jasangarritasunaren kultura integratzea. 4) Ikasleak ahalduntzea espazio parte-hartzaileak eskainiz. 5) Ikastetxeen sare lana sustatzea. 6) Irakasleen gaitasuna garatzea jasangarritasunerako hezkuntzan.

Proiektua bi ikasturteroko zikloan lantzen da: lehen ikasturtean diagnostikoa egiten da eta bigarrenean esku hartzea. Diagnostikoa "errealitatearen argazkia" ateratzea da, eta esku-hartzea alternatibak proposatzea. Bi urterokotasunean aldatzen da GIH, eta ondorioz diagnostiko eta esku hartze ziklo berri bat martxan jartzen da.

Proiektuan inplikaturako partaideak koordinatzailea, talde gidaria, ekoordezkariak, tutoreak, Beatarrak, mintegiak eta jangelako arduraduna dira. Artelatz ingurumen zerbitzuak, Berritzeguneak eta Hernaniko udalak proiektua arrakastaz gauzatzeko laguntza eskaintzen dute. Eusko Jaurlaritzak 2000€-ko dirulaguntza ematen du EA2030 programa ADI eskola programaren barruan.

2. Justifikazioa

Garapen Jasangarriari buruzko 2015eko Mundu Gailurrean, NBEko Estatu Kideek Garapen Jasangarritasunerako 2030 Agenda onartu zuten, pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko eta pertsona guztiei oparotasuna bermatze aldera. Agenda horrek 17 helburu,

169 xede eta 232 adierazle ditu, baita aitoren politiko bat ere. Nazioarteko garapen-agenda nagusia da 2016-2030 epealdirako. Unibertsala da eta horregatik, herrialde guztietan aplika daiteke, “garatuak” deiturikoak barne. Garapen Jasangarrirako 17 Helburuek pobrezia desagerrarazteko eta desberdintasunak eta urrakortasunak murrizteko mundu mailako tresna izan nahi duen jasangarritasunaren aldagaia txertatu dute.

Unesco Chair on World Language Heritage delakoak proposatzen du 18. GJH bat: hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore delako. Euskal Herriko testuinguruarekin bat eginez, Agenda 2030 programak 18. helburu hori, Hizkuntza eta kultur aniztasuna, gehitzea proposatzen du.



Ekintza-plan horrek bere lurreratzea du eremu eta arlo guztietan. Institutuzio guztiek, bai Eusko Jaurlaritzak, bai udaletxeek, bat egiten dute Agenda honekin; hala, jasangarritasunaren kultura hedatzeko marko oso garrantzitsua bihurtzen da. Gure kasuan, euskal hezkuntza zentroetan aurrera eramateko estrategia da Eskola Agenda 2030. Hori dela eta, ikastetxe bakoitzak, bere IHP eta IUPren arabera, ikasketa egoera ekosozial bat, GJH bat, batzuk edo beste batzuk hartuko ditu; betiere, udalerriaren planekin konplizitateak eta loturak bilatuz.

3. Helburuak

Esan bezala, Eskola Agenda 2030 proiektua ez da berarian Hernani BHI instituturako sortua izan; hortaz, atal honetan lehenik eta behin helburu orokorrak aipatzen dira, eta

ondoren Hernani BHI institutuan 2025/26 ikasturterako berariaz ezarritako helburuak nabarmentzen dira.

Eskola Agenda 2030 programaren helburu nagusia, jasangarritasunaren kultura hezkuntza-komunitateetan integratzea bilatzen da, batez ere ikasleengan, tokiko esparruan eta esparru globalean dauden arazo ekologiko eta sozialen irtenbideetan esku hartzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta konpromisoak garatuz; halaber, ikastetxeko eta tokiko ekintza eraldatzaileak egitea, bai banakakoak, bai taldekoak, orain eta etorkizunean. Horretarako, honako helburu orokorrak lantzen dira:

1.- Ikasteko eta prestakuntzako esparruak eraldatzea, ikasleek krisialdi ekosozial global eta lokalaren ezagutzaren eta oinarrizko eta zeharkako gaitasunen lanketaren bidez, jasangarritasunaren aldeko jarrera, konpromiso eta ekintza eraldatzaileak garatu ditzaten.

2.- Ikasleek ikastetxeko, udalerriko eta planetako arazo ekosozialen konplexutasuna identifikatzea eta aztertzea, jasangarritasunaren diagnostikoko estrategien bidez eta ondorioei buruzko hausnarketaren bidez, arazoaz kontzientzia hartzeko eta, 2030 Garapen Jasangarriko Helburuak lortze aldera, alternatibak proposatzeko.

3.- Ikastetxearen eta udalerriaren jasangarritasunaren kultura espazio eta baliabideen kudeaketan integratzea, kulturaren, politiken eta ekintzen arteko koherentzia bultzatuko duten estrategiak erabiliz, ikasleen parte-hartzetik sustatutako eta emaitzetan ebaluatutako ekintza eraldatzaileen bidez, ikastetxeko eguneroko bizitza hobetzeko eta udal politiketan eragina duten ekimenak proposatzeko.

4.- Ikasleak ahalduntzea ikasteko espazio parte-hartzaileak eta beraien bizimoduei buruzko gogoeta egiteko momentuak eskainita, non protagonistak izan daitezen, jasangarritasunaren kulturaren alde mobilizatzeko.

5.- Euskadiko, zein estatuko eta nazioarte mailako ikastetxeen sare lana sustatzea, baita erakundeen eta ikastetxeen arteko lankidetzaren ere, beharrezko diren koordinazio- eta komunikazio-egiturak erabiliz, baliabideak eta ezagutzak partekatzeko eta jasangarritasunaren kulturara aldatzeko sinergiak sortzea.

6.-Jasangarritasunerako Hezkuntzan irakasleen gaitasuna garatzea, jasangarritasunaren kultura curriculum ekosozial batean txertatuz, diziplinartekotasuna, arazo-egoerak eta parte

hartzeko eta ikertzeko metodologiak bezalako estrategien bidez, ikasleen gaitasunen garapena sustatzeko.


Hori guztia esanda, Hernani BHI institutuan 2025/26 ikasturterako hiru helburu zehaztu dira:

- 1.- 11.Garapen Iraunkorreko Helburuaren lanketa: Hiri eta komunitate jasangarriak. Horretarako “Mugikortasun jasangarria”-ren esku hartzea egitea, ikastetxe nahiz herri mailan.
- 2.- Curriculumaren alde ekosozialaren lanketa ikasgai desberdinetako programazioetan sartzea.
- 3.- Eremu iraunkorretan begirada ekosoziala lantzea (jangela ereduaren lanketa)

4. Garapena


EA2030 programa bi ikasturteroko zikloan lantzen da. Prozesua ikerketa-ekimen partehartzaile da, eta ondorioz sekuentzialki egiten du aurrera, bi urtetik behin gaiz aldatuz jasangarritasunaren kultura ikastetxean hedatuz.

Gaiari heltzen zaion lehen ikasturtean diagnostikoa egiten da eta bigarren ikasturtean esku hartzea. Organigrama orokorra honako hau da:



Diagnostikoa hasierako ebaluazioa, “errealitatearen argazkia”, izango litzateke, unean eta tokian egindako azterketa interesatzen den egoera eta joerak zehazteko.

Diagnostikoa garatzeko sekuentzia



Esku-hartzea, hezkuntza komunitateak, diagnostikoan lehenetsitako ondorioetatik abiatuta eta aztertutako egoera ekosozialei jasangarritasunaren eta GJHak lortzearen bidean, alternatibak proposatzen ditu. Hezkuntza komunitatearen proposamenak hiru dimentsio ezberdinetara zuzenduko dira: hezkuntza komunitatean bertan garatzekoak eta tokiko komunitatean eta komunitate globalean garatzekoak ere bai.

Guzti hori azalduta, jarraian Hernani BHIrako 2025/26 ikasturteko diagnostiko faserako planteatutako helburuak lortzeko egingo diren ekintzak azaltzen dira jarraian, baita horiek nola gauzatuko diren ere.

1. **Antolakuntza eta planifikazioaren diseinua.** Antolakuntza fasearen helburua estamentu guztien inplikazioa eta parte hartzea erraztea da, proiektuaren bidean laguntzeko eta egitura eta funtzionamendu jakin bat izateko. Horretarako, gela bakoitzeko ekoordezkariak izendatu dira eta talde gidaria osatu da (3 irakaslez osatua, eraikin bakoitzeko bat). Ikasturtearen helburuak finkatu dira, gutxi gorabeherako denboralizazioa zehaztu da eta koordinazio egitura osatu da (koordinatzaile-tutore-ikasle).

2. **Motibazio fasea.** Fase horren helburu nagusia Hezkuntza komunitatea osatzen dutenen interesa, konplizitatea eta inplikazioa bilatzea izango da, ikasleak protagonistak izango direlarik.
3. **Esku hartzea gauzatu.** Iaz egin genuen diagnostikoan oinarrituta, hiru ardatzetan planteatzen da esku hartzearen diseinua:
 - a. **GIHaren lanketa.** Proposamen desberdinak eraman dira aurrera mailaz maila ekoordezkariekin:
 - i. [1.DBH](#): Kanpaina informatiboa: Mugikortasun jasangarria Hernanin nola eta noraino iritsi daiteke?
 - ii. [2.DBH](#): Txirrinda konponketa tailerra
 - iii. [3.DBH](#): Jangelako eredu. Zenbat kilo botatzen ditugu astero zaborretara eta zergatik?
 - iv. [4.DBH](#): Eskola ondoko kaiola konponduko balitz erabiliko litzateke? galetegia institutuan
 - b. Eremu iraunkorra
 - i. Jangela ereduaren lanketa
 - c. Curriculuma
 - i. Mintegietan [saioak](#) haien programazioetan GIH-en lanketa txertatzeko.
4. **Emaitzak jakinarazi**
 - a. Hezkuntza komunitatea
 - b. Eskolarteko foroa
 - c. Udal foroa
5. **Ebaluazioa** → memoria

5. Denboralizazioa

Esan bezala, EA2030 programa bi ikasturteroko zikloan lantzen da. Honakoa da denboralizazio orokorra:

LEHENENGO IKASTURTEA (2024-2025)		
HASIERA	GARAPENA	BUKAERA
• Antolaketa eta motibazio fasea • Hasierako Udal Eskola Foroa*	• Eskolako eta herri mailako diagnostikoa • Esku-hartze planaren diseinua	• Eskolen arteko Foroa • Azken Udal Eskola Foroa • Azken ebaluaketa
BIGARREN IKASTURTEA (2025-2026)		
HASIERA	GARAPENA	BUKAERA
• Antolaketa eta motibazio fasea • Esku-hartze planaren proposamena abiapuntu • Hasierako Udal Eskola Foroa	• Esku-hartze planaren garapena	• Eskolen arteko Foroa • Azken Udal Eskola Foroa • Azken ebaluaketa

2025/26 ikasturtean egingo diren ekintzak denboralizazioa honako hau da:

	ira	urri	aza	ab	urt	ots	ma	api	mai	ek
Antolakuntza eta planifikazioaren diseinua.	x	x								
Motibazio fasea.			x	x						
Esku hartzea gauzatu.					x	x	x	x		
GIHaren lanketarako ikerketak mailaz maila					x	x	x	x		
a. Eremu iraunkorra							x			
b. Curriculum							x			
Emaitzak jakinarazi									x	
Ebaluazioa										x

6. Partaideak

EA30 aurrera eramateko ezinbestekoa da eremu desberdinetako partaideak inplikatzeari. Lanketa hezkuntza komunitate osoan egitea komini bada ere (ikus azpian agertzen den taula), errealitateak erakusten du zaila dela eremu guztietara iristea.



Praktikan, honak hauek dira proiektuan parte hartu dutenak:

- Koordinatzailea: proiektuaren nondik norakoa diseinatu eta ekintza plana aurrera eramaten ari zela bermatu. Partaide guztien arteko koordinazioaz arduratu da eta unean-unean sortzen ziren arazoei aterabidea eman.
- Talde gidaria: eraikin bakoitzeko irakasle bat zehaztu zen eta maila bakoitzean ekintza plana aurrera eramaten zela bermatzea zen bere ardura.
- Ekoordezkariak: gela bakoitzeko ordezkariak izan dira proiektu honen protagonistak. Horiek izan dira gainerako ikasleei ekintza plana jakinarazi diena eta diagnostikoan egindako ikerketak aurrera eraman dituztenak.
- Tutoreak: proiektu komunitarioko orduan eraman dira proiektuko ekintza planak aurrera, hortaz, tutoreen pazientzia eta laguntza ezinbestekoa izan da.
- Beatarrak: Eskolako ikasgaien curriculumean begirada ekosozialaren diagnostikoa egiteko laguntza eman dute.
- Mintegiak: norberak bere ikasgaiaren curriculumean begirada ekosoziala txertatua duenaren diagnostikoa egin du.
- Jangelako arduraduna: astebetean zaborretara zenbat janari botatzen den kalkulatu du.

7. Erakunde laguntzaileak

Proiektua aurrera eramateko, halaber, ezinbestekoa izan da ondorengo laguntza:

- Artelatz ingurumen zerbitzuak proiektuan aurrera eraman diren ikerketa lanak diseinatu ditu.

- Berritzeguneak orientazio lana egin du eta Agenda 2030-eko arduradun berrientzako 30 orduko formazioa eskaini du.
- Hernaniko udalak *Vuletina eskolan* proiektuan, liztor asiaticoen tranpak non jarri erabakitzeko laguntza eskaini du eta ikasleen parte hartzea sustatu du Udal foroan.

8. Aurrekontua edo diru laguntzak

2025/26 ikasturtean EA2030 programa ADI eskola programaren barruan kokatzen da. Proiektu hau aurrera eramateko Eusko Jaurlaritzak 2000€-ko diru laguntza ematen du. Horrekin justifikatu dira eskolan egin diren jarduera osagarrietako batzuk (jasangarritasunaren kultura zerikusirik dutenak) eta *Vuletina* eskolan proiektuko materiala ere. Aurten izango da diru laguntza eskaintzen den azken urtea. Datorren urteari begira baloratu beharko da ea proiektuarekin aurrera jarraitu nahi duen institutuak edo ez.

9. Ebaluazioa (aktualizatzeko falta, ekainean egingo da)

Eskola Agenda proiektu zabala da eta Berritzegunearen bidez jarraipena egiten da; jarraipen horrek ebaluazio moduan [memoria](#) bat gauzatzea eskatzen du.

Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
11. GIH-ren lanketa	2025/06/02	Proiektuen koordinazio bileran	Agenda arduraduna : Haizea Isasa Amas	Prozesuan	Helburu bakoitzaren lanketa bi urterokoa denez, 2025-2026ean emango zaio amaiera esku hartzearekin
Curriculumaren alde ekosozialaren lanketaren diagnostikoa egitea ikasgai desberdinetan	2025/06/02	Proiektuen koordinazio bileran	Agenda arduraduna : Haizea Isasa Amas	Egina	Diagnostikoa egin da, datorren ikasturtean helburua ikasgai bakoitzaren programazioan arazo ekosozial bat txertatzeko irakaslearen inplikazioa lortzea litzateke

Eremu iraunkorretan begirada ekosozialaren diagnostiko egitea	2025/06/02	Proiektuen koordinazio bileran	Agenda arduraduna : Haizea Isasa Amas	Egina	Diagnostikoa egin da, datorren ikasturtean helburua jangela ereduaren lanketa egitea litzateke
--	------------	--------------------------------------	--	-------	---